# ERRENTERIAKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO II. BERDINTASUNERAKO-PLANA 2013-2016

# *II. PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DE ERRENTERIA 2013-2016*

Errenterian, 2013ko apirilean

**AURKIBIDEA/*ÍNDICE***


Sarrera / *Introducción*....3

Berdintasun Plana / *Plan de Igualdad*....5

1. Planaren ardatzak eta helburuak / *Ejes y objetivos del Plan*....5

2. Planaren helburuen azalpena eta aurrera eramateko tresna edo ekimen proposamena / *Explicación de los objetivos del Plan y herramientas o iniciativas propuestas para su consecución*....11

    1. Gobernu ona / *Buen Gobierno*....11
    2. Indarkeria matxista ezabatzea / *Eliminar la violencia machista*....17
    3. Emakumeen ahalduntzea / *Empoderamiento de las mujeres*....20
    4. Bizimodu eramangarria erdigunean jartzea / *Poner la sostenibilidad en el centro de la vida*....23

3. Plana garatzeko egitura / *Estructura para el desarrollo del Plan*....26

- Berdintasunerako Arloa / Área de Igualdad....26
- Errenteriako Berdintasun Kontseilua / *Consejo para la Igualdad de Errenteria*....27
- Berdintasun Batzorde teknikoa / *Comisión técnica de igualdad*....28
- Berdintasun Batzorde informatiboa / *Comisión informativa de igualdad*....29
- Berdintasun eta hezkuntza mahaia / *Mesa de igualdad y educación*....30
- Indarkeriaren lan-mahaia / Mesa de trabajo sobre violencia....31

4. Urteko planak eta ebaluazioa / *Planes anuales y evaluación*....33

5. Baliabideak / Recursos....34

## SARRERA

Errenteriako Udalak 2007an egin zuen berdintasunaren eremuko lehenengo diagnosia. Diagnosi horretan jasotako emaitzak Emakume eta gizonen arteko I. Berdintasun Plana egiteko balio izan zuten.

2008ko abenduaren 19an, Osoko bilkuran onartu zen **Errenteriako emakume eta gizonen arteko Berdintasun Plana 2008-2012**. Plan honen bitartez ezarri ziran egun berdintasunerako politikak osatzen duten oinarriak.

Lau urte igaro ondoren, 2012aren amaieran, erabaki da ebaluaketa eta hausnarketa prozesu bat martxan jartzea, alde batetik, lehenengo Planaren betetze maila eta eraginkortasuna neurtzeko, eta bestetik, bigarren Berdintasunerako Planaren ardatz estrategikoak definitzeko.

Elhuyar Aholkularitzarekin batera martxan jarritako prozesu honek lagundu digu hurrengo urteotan egingo dugunaren oinarriak finkatzen eta lan ildoak zehazten.

Ebaluaketa eta hausnarketa prozesua egin ahal izateko kontuan hartu dira urteko plangintzen memoriak eta bilerak egin dira Berdintasunerako Kontseilu, batzorde tekniko eta politikoarekin. Honez gain, herritarrekin eztabaida prozesu bat zabaldu da etorkizunerako erronkak definitzeko. Guztira, 50 pertsonek hartu dute parte, 35 emakume eta 15 gizonek. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartu eta egindako ekarpenengatik.

Ondoren aurkezten den Plana I. Berdintasun Planaren ebaluaketaren eta etorkizunera begirako erronken inguruko hausnarketaren emaitza da. Planak hurrengo urteetako ardatz eta helburuak zehazten ditu, halaber, helburu horiek lortzeko ekintza zerrenda jasotzen du. Dokumentu hau oinarritzat harturik, urtero berdintasunaren inguruko plangintza definituko da.

## *INTRODUCCIÓN*

*El Ayuntamiento de Errenteria en 2007 realizó el primer diagnóstico de igualdad cuyos resultados fueron utilizados para la elaboración del I.Plan de Igualdad de mujeres y hombres.*

*El 19 de diciembre de 2008, el Pleno municipal aprobó el **Plan de igualdad de mujeres y hombres de Errenteria 2008-2012**. A través de este Plan se establecieron las bases de lo que son hoy las políticas de igualdad.*

*4 años después, a finales del 2012, se decide poner en marcha un proceso de evaluación y reflexión para, por un lado, determinar el grado de cumplimiento y eficacia del primer Plan, y por otro, definir las principales líneas de trabajo para el segundo Plan de Igualdad.*

*Dicho proceso, llevado a cabo con el acompañamiento de Elhuyar Aholkularitza, ha permitido definir las bases y los ejes de trabajo a llevar a cabo en los próximos años.*

*Para realizar el proceso de evaluación y reflexión se han tenido en cuenta las memorias de las planificaciones anuales y se han realizado reuniones con la comisión técnica, política y el Consejo de Igualdad. Así mismo, se ha abierto un proceso de discusión con la ciudadanía para determinar los retos de futuro. En total han participado 50 personas, 35 mujeres y 15 hombres. A todas y todos ellos les agradecemos su participación y las aportaciones realizadas.*

*El Plan que se presenta a continuación es el resultado de la evaluación realizada al I. Plan de Igualdad y la reflexión realizada sobre los retos de cara a futuro. El Plan define los ejes y los objetivos a perseguir en los próximos años, así como una batería de actuaciones que se pueden llevar a cabo para la consecución de dichos fines. Teniendo este documento de base, anualmente se definirá la planificación a llevar a cabo en materia de igualdad.*

Dokumentu honek hurrengoa jasotzen du:

- Berdintasun arloan zehaztutako **lanerako ardatz eta helburuak**
- Helburu bakoitzeko proposatutako **tresnak eta ekimenak**
- Plana garatzeko proposatzen den **estruktura**
- Azkenik, **2013ko plangintza** atxikitzen da

*El presente documento recoge lo siguiente:*

- *Los **ejes de trabajo y objetivos** marcados en materia de igualdad*
- *Las **herramientas e iniciativas** propuestas por cada objetivo*
- *La **estructura** propuesta para el desarrollo del Plan.*
- *Finalmente, se anexa la **planificación para el 2013***

## 1. PLANAREN ARDATZAK ETA HELBURUAK / *1. EJES Y OBJETIVOS DEL PLAN*

Aurkezten ditugun ardatz eta helburu hauek aukeratuak izan dira kontuan izanik Eusko Jaurlaritzaren V. Emakume eta gizonen berdintasunerako plana, Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana eta Errenteriako I. Emakume eta gizonen arteko berdintasun Planaren ebaluazioa.

*Los ejes de trabajo y objetivos que se presentan a continuación han sido escogidos teniendo en cuenta los ejes de trabajo del V. Plan para la Igualdad de mujeres y hombres aprobado por el Gobierno Vasco, el II. Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres, así como la evaluación realizada al I.Plan de igualdad de mujeres y hombres de Errenteria.*

| **GOBERNU ONA**<br>***BUEN GOBIERNO*** | **INDARKERIA MATXISTA EZABATZEA**<br>***ELIMINAR LA VIOLENCIA MACHISTA*** | **EMAKUMEEN AHALDUNTZEA**<br>***EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES*** | **BIZIMODU ERAMANGARRIA ERDIGUNEAN JARTZEA**<br>***PONER LA SOSTENIBILIDAD EN EL CENTRO DE LA VIDA*** |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **ZER DA?**<br>Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzera bideratutako politika publikoak diseinatu eta garatzea ahalbidetzen duen modua da. Herritarren parte-hartzea eta genero-mainstreamingaren bultzadan sostengatzen da. | **ZER DA?**<br>Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrienetako bat da indarkeria matxista. Indarkeria gizartearen estruktura patriarkalean eusten da eta modu zuzenean edo zeharka adierazi daiteke. | **ZER DA?**<br>Emakumeen bizitzarako estrategikoak diren erabakiak hartu ahal izateko trebetasunak handiagotzea da. Prozesu pertsonal eta/edo indibiduala izan daiteke, non emakumeen parte-hartze sozio-politikoa bultzatzen den. | **ZER DA?**<br>Bizia jartzea egiten diren politiken erdigunean biziaren onerako behar diren baliabideak bermatuz. Horretarako, proposatzen da dagoenaren birbanaketari lehentasuna ematea hazkuntzaren aurretik eta biziaren jasangarritasuna kolektibizatzea. |

| GOBERNU ONA<br>***BUEN GOBIERNO*** | INDARKERIA MATXISTA EZABATZEA<br>***ELIMINAR LA VIOLENCIA MACHISTA*** | EMAKUMEEN AHALDUNTZEA<br>***EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES*** | BIZIMODU ERAMANGARRIA ERDIGUNEAN JARTZEA<br>***PONER LA SOSTENIBILIDAD EN EL CENTRO DE LA VIDA*** |
|---|---|---|---|
| | | | |
| ***¿QUÉ ES?***<br>*Es crear las condiciones que permitan diseñar y desarrollar políticas públicas orientadas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres. Se apoya en el impulso de la participación ciudadana y el mainstreaming de género.* | ***¿QUÉ ES?***<br>*La violencia machista es una de las expresiones más graves del desequilibrio entre mujeres y hombres. Está sustentada sobre una estructura patriarcal que posibilita que esta violencia se de de manera directa o indirecta sobre las mujeres.* | ***¿QUÉ ES?***<br>*Significa ampliar la habilidad de las mujeres para tomar decisiones vitales estratégicas. Supone un proceso de concienciación individual y/o colectivo a través del cual se impulsa la participación social y política de las mujeres.* | ***¿QUÉ ES?***<br>*Poner la vida en el centro de las políticas garantizando los recursos necesarios para el buen vivir. Para ello, se propone priorizar la redistribución de los recursos existentes frente al crecimiento y colectivizar la sostenibilidad de la vida.* |

## 1. GOBERNU ONA
## BUEN GOBIERNO

Errenteriako Udalak azken urteotan aurrera-pauso handiak eman ditu emakume eta gizonen arteko berdintasuna Udalean zeharkako gai gisa txertatzeko. Gehienbat berdintasuna bultzatzeko egiturak finkatu ditu eta aurrekontu eta langile propioa duen Berdintasun Arloa sortu du.

Hala ere, Udaleko politikan berdintasuna txertatu dadin lan handia dago egiteko, bereziki, sentsibilizazio, prestakuntza eta prozedurak zehazteari dagokionez.

Gobernu onak lan egiteko modu berri bat planteatu nahi du, gobernatzeko modu berri bat non genero-ikuspegia txertatuko den egiten diren plangintza, programa eta politika guztietan eta herritarren parte-hartzea bultzatuko den.

Ardatz honek, konkretuki, 5 helburu nagusi jasotzen ditu:

*El Ayuntamiento de Errenteria en los últimos años ha logrado dar pasos importantes para incorporar la igualdad de mujeres y hombres como tema transversal en el Ayuntamiento. Principalmente ha establecido las estructuras necesarias para el impulso de la igualdad y ha creado un Área de Igualdad con personal y presupuesto propios.*

*Así y todo, para que la igualdad se incorpore en la política municipal aún queda mucho trabajo por hacer, concretamente, en cuanto a sensibilización, formación y establecimiento de procedimientos se refiere.*

*El buen gobierno pretende plantear una nueva forma de hacer, una nueva forma de gobernar en la cual se incorpore la perspectiva de género en todas las planificaciones, programas y políticas y se impulse la participación ciudadana.*

*Este eje, concretamente, recoge 5 objetivos principales:*

| HELBURUAK | OBJETIVOS |
|---|---|
| 1.1. Udaleko langileak zein ordezkari politikoak berdintasunaren aldeko gobernantzan sentsibilizatuta eta trebatuta egotea | 1.1. Que tanto el personal como las personas con representación política del Ayuntamiento estén sensibilizadas y formadas en la gobernanza para la igualdad |
| 1.2. Berdintasuna, zeharkako gai gisa, Udaleko politika eta ekimen guztietan txertatuta egotea | 1.2. Que la igualdad, como tema transversal, esté incorporado en todas las políticas e iniciativas del Ayuntamiento |
| 1.3. Berdintasunerako Legea betetzen dela bermatzea, bete dadin behar diren neurriak hartuz | 1.3. Garantizar el cumplimiento de la Ley de Igualdad adoptando las medidas necesarias para su cumplimiento |
| 1.4. Berdintasunaren aldeko politikak landu, erabaki eta martxan jartzeko garaian emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea bideratzea eta erabakitzeko ahalmena aitortzea | 1.4. Canalizar la participación y reconocer la capacidad de las mujeres y las asociaciones de mujeres para trabajar, decidir y poner en marcha políticas a favor de la igualdad |
| 1.5. Berdintasun-politikei zabalkunde handiagoa ematea eta berdintasunaren eremuko praktika onak ikustaraztea | 1.5.Dar mayor difusión a las políticas de igualdad y visibilizar las buenas prácticas en esta materia |

## 2. INDARKERIA MATXISTA EZABATZEA
## ELIMINAR LA VIOLENCIA MACHISTA

Indarkeria matxista ezabatzeko pausuak ematea Udalak duen ardura handienetako bat da. Horretarako, I. Berdintasunerako planak ekintza batzuk jasotzen zituen. Ekintza horiek martxan jarri dira azken urteetan.

*Dar pasos para eliminar la violencia machista es una de las mayores preocupaciones del Ayuntamiento. Para ello, el I. Plan para la igualdad recogía una serie de acciones que se han puesto en marcha durante los últimos años.*

Konkretuki, sentsibilizazio kanpainak martxan jarri dira eta lan egin da herritarrekin, ikastetxeekin, komunikabideekin eta eragile ezberdinekin.
Honez gain, emakumeei arreta ematen dieten zerbitzuen arteko harremana sendotzeko bilerak egin dira, elkarlanerako hitzarmena sinatu delarik. Genero-indarkeriaren inguruko diagnostikoa ere egin da.

*Concretamente, se han realizado campañas de sensibilización y se ha trabajado con la ciudadanía, los centros escolares, los medios de comunicación y distintos agentes sociales.*
*Así mismo, con el fin de reforzar la relación entre los servicios que atienden a las mujeres se han realizado reuniones y se ha firmado un convenio de colaboración. También se ha realizado un diagnóstico sobre la violencia de género.*

Hurrengo urteetan egindako bidea sendotzea da Udalak duen erronka, ahalik eta eragile gehienak inplikatuz eta gizartearen eremu ezberdinetara helduaz. Horretarako, ardatz honek, 3 helburu nagusi planteatzen ditu:

*Reforzar el camino emprendido es el reto del Ayuntamiento para los próximos años, logrando implicar al mayor número de agentes posibles y tratando de llegar al mayor número de ámbitos posibles. Para ello, este eje plantea 3 objetivos principales:*

| HELBURUAK | OBJETIVOS |
|---|---|
| 2.1. Herritarrak sentsibilizatzea indarkeriaren errealitatearen inguruan | 2.1. Sensibilizar a la ciudadanía sobre la realidad de la violencia |
| 2.2. Indarkeria kasuen arreta hobetzea | 2.2. Mejorar la atención de los casos de violencia |
| 2.3. Indarkeria prebenitzeko lana egitea | 2.3. Trabajar para la prevención de la violencia |

## 3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
## EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES

Emakumeen ahalduntzea ezinbestekoa da gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu nahi badugu. Emakumeak bigarren mailako hiritar izaten jarraitzen duten gizarte honetan emakumeen burujabetze eta parte-hartze politikoa bultzatzea nahitaezkoa da.

*El empoderamiento de las mujeres es indispensables para conseguir la igualdad de mujeres y hombres. En esta sociedad en la que las mujeres siguen siendo ciudadanas de segunda es necesario impulsar el empoderamiento y la participación política de las mujeres.*

Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko ekintza asko jarri ditu martxan Udalak azken urteetan, arlo batzuetan beste batzuetan baino garapen maila handiagoa izan dutelarik. Bereziki, kirola, hirigintza eta hezkuntza arloan egin da lanik handiena.

*En los últimos años el Ayuntamiento ha puesto en marcha muchas acciones para impulsar el empoderamiento de las mujeres, siendo el desarrollo de dichas acciones mayor en algunas áreas que en otras. Especialmente, es en las áreas de deporte, urbanismo y educación donde se ha avanzado más en esta línea.*

Kirolaren eremuan, esaterako, emakumeen kirola bultzatu da espontsorizazioaren bitartez, sentsibilizazio kanpaina eginez, komunikabideekin hitzarmenak sinatuz, etab. Hirigintzan, genero-ikuspegia txertatzeko trebakuntza-hausnarketa tailerrak egin dira eta proposamen konkretuak planteatu dira. Hezkuntzan, guraso, irakasle eta ikasleekin lan egin da.

*En el ámbito deportivo, por ejemplo, se ha impulsado el deporte de las mujeres a través de una esponsorización, a través de una campaña de sensibilización, firmando convenios con los medios de comunicación, etc. En urbanismo, se han realizado talleres de formación-reflexión para incorporar la perspectiba de género en urbanismo y se han realizado propuestas concretas. En educación, se ha trabajado con el profesorado, las familias y el alumnado.*

Hurrengo urteetako erronka, arlo hauetan lanean jarraitzeaz gain beste arloetan eragin handiagoa izatea delarik. Ardatz hau garatzeko 3 helburu nagusi planteatzen dira:

*El reto para los próximos años está en continuar trabajando en las áreas mencionadas y lograr mayor implicación de las áreas restantes. Para el desarrollo de este eje se plantean 3 objetivos principales:*

| HELBURUAK | OBJETIVOS |
|---|---|
| 3.1. Herriko emakumeak ahalduntzea | 3.1. Empoderar a las mujeres del municipio |
| 3.2. Herriko emakumeen eta emakume-taldeen arteko sarea indartzea | 3.2. Fortalecer la red entre mujeres y los grupos de mujeres del municipio |
| 3.3. Emakumeentzako eredugarri/erreferente izango diren emakumeak ikustaraztea | 3.3. Visualizar a aquellas mujeres que puedan ser ejemplo/referentes para las mujeres |

## 4. BIZIMODU ERAMANGARRIA ERDINGUNEAN JARTZEA
## PONER LA SOSTENIBILIDAD EN EL CENTRO DE LA VIDA

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezin daiteke bultzatu gizarte eta genero desberdintasunetan sostengatzen den eredu sozio-ekonomiko batean. Gaur egungo gizarteak diruaren pilaketaren logika bizitzaren baldintzen gainetik jartzen du. Logika honek bereziki emakumeengan du eragin zorrotza, emakumeak bilakatzen direlako krisia xurgatzeko azken koltxoia.

*La igualdad de mujeres y hombres no se puede conseguir en un modelo socio-económico que se sostiene en las desigualdades sociales y de género. La sociedad actual se basa en una lógica de acumulación de capital que prima la ganancia sobre las condiciones de vida. Esta lógica repercute especialmente de forma severa sobre las mujeres quienes se convierten en el colchón último de la absorción de la crisis.*

Ardatz honek gizarte eredu berri bat bultzatu nahi du non bizimodu eramangarria Udaleko politika guztien erdian egongo den, horrela, bizia eta ez onurak lortzea izango da eginkizun politikoa gidatuko duena.

*Este eje, pretende impulsar un modelo social nuevo en el que la sostenibilidad de la vida esté en el centro de todas las políticas municipales, de manera que sea la vida, y no la obtención de beneficios quienes guíen la actuación política.*

Horretarako, 3 helburu nagusi proposatzen dira:

*Para ello, se proponen 3 objetivos principales:*

| HELBURUAK | OBJETIVOS |
|---|---|
| 4.1. Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea | 4.1. Fomentar la autonomía económica de las mujeres |
| 4.2. Eguneroko bizimodua eramangarri egiteko beharrezkoak diren lanei duten balioa ematea | 4.2. Dar el valor que merecen a los trabajo necesarios para sostener la vida cotidiana |
| 4.3. Eredu sozial berria sustatzea | 4.3. Fomentar un nuevo modelo social |

## 2. PLANAREN HELBURUEN AZALPENA ETA AURRERA ERAMATEKO TRESNA EDO EKIMEN PROPOSAMENA

## *EXPLICACIÓN DE LOS OBJETIVOS DEL PLAN Y HERRAMIENTAS O INICIATIVAS PROPUESTAS PARA SU CONSECUCIÓN*

| 1. GOBERNU ONA<br>BUEN GOBIERNO | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **1.1. Udaleko langileak zein ordezkari politikoak berdintasunaren aldeko gobernantzan sentsibilizatuta eta trebatuta egotea**<br><br>Helburu honekin lotuta, behar-beharrezkoa da Udala osatzen duten kideek indarrean den Berdintasun Plana eta bere bidez sustatu nahi diren berdintasunaren aldeko politikak ongi ezagutzea. Halaber, ezinbestekoa da udal ordezkariak beraien ardurapeko sailen inplikazioaren beharraz jabetzea eta inplikazio hori sustatzea. | • Formazioa egitea.<br>• Berdintasun teknikariak aholkularitza ematea udal-sailei.<br>• Berdintasuneko Batzorde Teknikoa Berdintasun Planaren garapenean agente aktiboa izatea.<br>• Berdintasuneko Batzorde Politikoa Berdintasun Planaren garapenean agente aktibo izatea |
| ***1.1. Que tanto el personal como las personas con representación política del Ayuntamiento estén sensibilizadas y formadas en la gobernanza para la igualdad***<br><br>*Es necesario que el conjunto de personas que forman el Ayuntamiento, tanto a nivel técnico como político, conozcan bien el Plan de Igualdad vigente y las políticas a favor de la igualdad que se quieren impulsar con el mismo. Del mismo modo, es indispensable que las personas con representación municipal entiendan la implicación necesaria de los departamentos que estén a su cargo y la fomenten.* | • *Realizar formación.*<br>• *Asesoramiento de la técnica en Igualdad a los diferentes departamentos municipales.*<br>• *Que la Comisión Técnica de Igualdad sea un agente activo en el desarrollo del Plan de Igualdad.*<br>• *Que la Comisión Política de Igualdad sea un agente activo en el desarrollo del Plan de Igualdad* |

| 1. GOBERNU ONA<br>BUEN GOBIERNO | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **1.2. Berdintasuna, zeharkako gai gisa, Udaleko politika eta ekimen guztietan txertatuta egotea**<br><br>Zeharkakotasuna lantzeko garrantzitsua da halaber, zeharkakotasun hori erraztuko duen antolamendu-kultura sustatzea. Lehen Planak Berdintasunerako Batzorde Teknikoa sustatu eta jarri zuen martxan, sail desberdinetako ordezkariek osatutakoa. Bide horretatik, interesgarria izan liteke, adibidez, Udalean zeharkako gaiak zein diren identifikatu eta horiek guztiak batera lantzeko gune bakar bat sortzeko aukera aztertzera. Zeharkako gai gisa hainbat har daitezke: berdintasunaz gain, euskara, ingurumena, kultur-aniztasuna, belaunaldi-artekotasuna, etab. | • Formazioa egitea.<br>• Berdintasun teknikariak aholkularitza ematea udal-sailei.<br>• Berdintasuneko Batzorde Teknikoa helburuaren lorpenean agente aktiboa izatea.<br>• Udal-sailek Berdintasun Arloarekin lankidetzan proiektu jakinak lantzea Hirigintza eta Generoa egitasmoan edo Kirol-taldeen espontsorizazioan egin den modura. Datozen urteetarako lehentasunezko eremuak: hezkuntza, kultura eta gizarte zerbitzuak.<br>• Lankidetzako aukerarik ikusten ez den kasuetan, berariazko egiturak sortu eta daudenak mantendu (Hezkuntza arlokoa, adb.)<br>• Zeharkako gaien inguruko batzorde tekniko bat osatzeko aukerak aztertu eta, egoki joz gero, martxan jarri.<br>• Udalak diru-laguntzak ematen dituenean, genero-ikuspegia bermatzeko neurrien artean, formazio txertatzea.<br>• Azpiegitura berriak egiteko garaian, emakumeen beharrei eta nahiei arreta berezia jartzea.<br>• Berdintasun politikak egiteko garaian oso lagungarri izan daitezkeen tresnak lantzeko prozesuak martxan jartzeko aukera aztertu eta erabaki: klausula sozialak edota berdintasunerako ordenantza, kasu. |

| | |
|---|---|
| ***1.2. Que la igualdad, como tema transversal, esté incorporado en todas las políticas e iniciativas del Ayuntamiento***<br><br>*Para el impulso de la transversalidad, es necesario además, fomentar una cultura organizativa que la facilite. El primer Plan de Igualdad ya ha impulsado la creación y puesta en marcha de una Comisión Técnica de Igualdad, con representación de los diversos departamentos del Ayuntamiento. En esa misma dirección, podría ser interesante, la creación de una Comisión Técnica para la integración de los temas transversales en general. Para ello, deberían identificarse, los temas transversales considerados prioritarios por el ayuntamiento y analizar la opción de crear un solo espacio para trabajar sobre ellos. Podrían considerarse temas transversales: la igualdad, el euskera, el medio ambiente, la diversidad cultural, la inter-generacionalidad, etc.* | • *Realizar formación*<br>• *Asesoramiento de la técnica en Igualdad a los diferentes departamentos municipales.*<br>• *Que la Comisión Técnica de Igualdad sea agente activo en el desarrollo del Plan de Igualdad.*<br>• *Que los diversos departamentos municipales trabajen proyectos concretos en colaboración con el Área de Igualdad tal y como se ha hecho en los proyectos de Urbanismo y Género o en la esponsorización de grupos deportivos, etc.). Ámbitos prioritarios para los próximos años: educación, cultura y servicios sociales.*<br>• *En los casos en que no se vea posibilidad de colaboración, crear estructuras especificas y mantener las existentes (por ejemplo, la de Educación).*<br>• *Examinar la opción de crear una comisión técnica en torno a los temas transversales, y en caso de verla oportuna, ponerla en funcionamiento.*<br>• *Incluir la formación entre las medidas para asegurar la perspectiva de género en las ayudas económicas que concede Ayuntamiento.*<br>• *A la hora de crear nuevas infraestructuras, poner especial atención a las necesidades y deseos de las mujeres.*<br>• *Analizar y decidir la posibilidad de abrir procesos para elaborar herramientas que nos pueden ayudar a avanzar considerablemente en la realización de políticas públicas de igualdad tales como las cláusulas sociales o una ordenanza de igualdad* |

| 1. GOBERNU ONA<br>BUEN GOBIERNO | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **1.3. Berdintasunerako Legea betetzen dela bermatzea, bete dadin behar diren neurriak hartuz.**<br><br>Diskriminatzaileak izan daitezkeen jarrera edo ekimenak identifikatu, aztertu, gaitzetsi eta bideratzeko behar diren neurriak hartu behar ditu Udalak.<br>Gainera, Udalak berdintasunaren eremuan hartutako beste gainerako konpromisoak ere beteko ditu edo betetzeko neurriak hartuko ditu, adibidez, Berdintasunerako Europako Gutunaren bidez hartutako konpromisoak. | • Berdintasunerako Legea eta bestelako tresnen bidez hartutako konpromisoak, Berdintasun Plana edo Berdintasunerako Europako Gutuna kasu, betetzea edo/eta betetzeko behar diren neurriak hartzea.<br>• Berdintasun-politikak egiteko baldintzak sortzen lagunduko diguten neurriak hartzea: datuak bereizita jasotzea, sexuaren araberako azterketa berezituak egitea, genero-inpaktuaren gaineko azterketak egitea, etab.<br>• Udalak komunikazio ez-sexista bermatzeko neurriak hartu eta baliabideak jartzea (zuzenean egiten duen komunikazioan eta baita sustatzen edo laguntzen dituen ekimenetan ere).<br>• Elkarte gastronomikoen inguruan azterketa egin eta neurriak hartzea |
| ***1.3. Garantizar la Ley de Igualdad adoptando las medidas necesarias para su cumplimiento.***<br><br>*El Ayuntamiento debe tomar las medidas necesarias para identificar, analizar, condenar y reconducir todas aquellas iniciativas o actitudes que puedan ser discriminatorias y que vayan en contra de lo recogido en la Ley de Igualdad, tanto en el ámbito del ayuntamiento, como en el ámbito municipal.*<br>*Además, deberá cumplir o generar las condiciones necesarias para cumplir con todo lo recogido en otros documentos que el Ayuntamiento se haya comprometido a cumplir como la Carta Europea para la igualdad, por ejemplo.* | • *Ser rigurosos en el cumplimiento de la ley y tomar las medidas necesarias para cumplir los compromisos adquiridos a través de herramientas tales como el Plan de Igualdad o la Carta Europea para la igualdad.*<br>• *Adoptar medidas para nos ayuden a generar condiciones para hacer políticas de igualdad: recabar datos segregados, realizar análisis diferenciados según sexo, informes de impacto de género, etc.*<br>• *Que el ayuntamiento tome las medidas y ponga los medios necesarios para asegurar una comunicación no sexista (tanto en su comunicación como en la comunicación de aquellas iniciativas que fomenta y/o ayuda).*<br>• *Hacer un estudio sobre las sociedades gastronómicas y tomar medidas.* |

| 1. GOBERNU ONA<br>BUEN GOBIERNO | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **1.4. Berdintasunaren aldeko politikak landu, erabaki eta martxan jartzeko garaian emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea bideratzea eta erabakitzeko ahalmena aitortzea.**<br><br>Ahalmena aitortzearekin batera, garrantzitsua da Berdintasunerako Kontseilua, eta zehazki, Kontseiluan parte hartzen ari diren elkarte eta norbanakoak egiten ari diren lanaren errekonozimendua eta herriari egiten dioten ekarpenaren aitortza. | • Berdintasunerako Kontseilua organo aktibo eta eraginkorra izatea (erabakigarria).<br>• Berdintasun Plana garatzea.<br>• Urtez urteko kudeaketa-planak landu eta horiei segimendua egitea.<br>• Berdintasun Arloaren aurrekontua urtez urte adostea, Berdintasun Planaren garapenak eskatzen duenaren baitan.<br>• Berdintasun Arloak langile propioak edukitzea<br>• Udalean martxan jartzen diren prozesuetan emakumeen parte-hartzea bermatzea |
| ***1.4. Canalizar la participación y reconocer la capacidad de las mujeres y las asociaciones de mujeres para trabajar, decidir y poner en marcha políticas a favor de la igualdad.***<br><br>*Además de reconocer su capacidad, es importante el reconocimiento al trabajo que está realizando el Consejo de Igualdad. En concreto, se trata de reconocer la aportación que están haciendo al municipio las personas y las asociaciones que toman parte en el Consejo de Igualdad.* | • *Que el Consejo de Igualdad sea un órgano activo y eficaz (decisorio).*<br>• *Desarrollo del Plan de Igualdad.*<br>• *Trabajar los planes de gestión anuales y hacer seguimiento de los mismos.*<br>• *Acordar el presupuesto de la unidad de igualdad anual, en base a lo que el desarrollo del Plan de Igualdad requiera.*<br>• *Que el Área de Igualdad tenga sus propios recursos humanos.*<br>• *Garantizar la participación de las mujeres en los procesos que se pongan en marcha en el municipio* |

| 1. GOBERNU ONA<br>BUEN GOBIERNO | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **1.5. Berdintasun-politikei zabalkunde handiagoa ematea eta berdintasunaren eremuko praktika onak ikustaraztea.**<br><br>Garrantzitsua da berdintasunaren eremuan egiten ari den lana ikusgarriago egitea herritarrak sentsibilizatzeko gai honek duen garrantziaren inguruan. | • Berdintasun-politikei eta berdintasunaren eremuan egiten diren ekimenei zabalkunde handiagoa ematea. Ezagutzera eman, adibidez, Plangintzaren ebaluazioa, plan berriak jasotzen dituen asmoak, Kontseiluan egiten den lana, etab.<br>• Berdintasunaren eremuko praktika onak ikustarazi eta horiei balioa ematea (izan pertsona jakinenak, edo entitate publiko edo pribatuenak) |
| ***1.5. Dar mayor difusión a las políticas de igualdad y visibilizar las buenas prácticas en esta materia.***<br><br>*Es importante dar mayor visibilidad a la labor que se está haciendo en el ámbito de la igualdad, para sensibilizar a la población sobre la importancia de esta materia.* | • *Dar mayor difusión a las políticas de igualdad y a las iniciativas que se ponen en marcha para promover la igualdad. Dar a conocer, por ejemplo, la evaluación del plan, el nuevo plan que se propone, las iniciativas que se pongan en marcha, la labor que se hace en el Consejo...etc.*<br>• *Visualizar y dar relevancia a las buenas prácticas en materia de igualdad (por parte de personas con nombres propios o entidades públicas o privadas)* |

| 2. INDARKERIA MACHISTA EZABATZEA<br>ELIMINAR LA VIOLENCIA MACHISTA | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **2.1. Indarkeriaren errealitatearen inguruan herritarrak sentsibilizatzea**.<br><br>Indarkeria-egoerak zein diren eta nola errekonozitu landu, bai errealitate hori bizi dutenen artean, bai errealitate horren ikusle direnen artean ere (arreta berezia jarri kolektibo jakinei, adb., adineko emakumeak). Biktimaz dugun irudi estereotipatua eta terminoa bera kolokan jarri. Indarkeria-kasuei arreta emateko dauden zerbitzuak eta horietara iristeko moduak jakinak izatea. | • Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea.<br>• Formazioa ematea herritarren kolektibo jakinei (adb.: gizonezkoak, lanbide jakinetako profesionalak, adineko emakumeak, gazteak, etab.).<br>• Sentsibilizatzeko ekimenak (kulturaren eremukoak, salaketakoak…) egitea.<br>• Dauden zerbitzuak ezagutaraztea.<br>• Gaiarekin lotuta, erreferentziazko gune bat sustatzea (Emakumeen Txokoa?)<br>• Indarkeria-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeak laguntzeko sare bat sustatzea, etab. |
| ***2.1. Sensibilizar a la ciudadanía sobre la realidad de la violencia.***<br><br>*Trabajar los mecanismos para la detección de situaciones de violencia, tanto entre las personas que viven esa realidad como entre quienes son testigo de ella (poner especial énfasis en colectivos específicos, por ejemplo, las mujeres mayores). Cuestionar la imagen estereotipada que tenemos de las victimas (e incluso el término en sí). Dar a conocer los servicios de atención que existen y la manera de acceder a ellos.* | • *Hacer campañas para sensibilizar a la ciudadanía*<br>• *Dar formación a colectivos específicos (por ejemplo: hombres,personal de ciertas profesiones, mujeres mayores, jóvenes, etc.).*<br>• *Llevar a cabo iniciativas de sensibilización (actividades culturales, reivindicativas…)*<br>• *Dar a conocer los servicios existentes.*<br>• *Fomentar un punto de referencia con relación al tema (Emakumeen Txokoa?)*<br>• *Fomentar la creación de una red de apoyo para las mujeres en situación o en riesgo de violencia* |

| 2. INDARKERIA MACHISTA EZABATZEA<br>ELIMINAR LA VIOLENCIA MACHISTA | |
|---|---|
| HELBURUAK - *OBJETIVOS* | TRESNAK/EKIMENAK – *HERRAMIENTAS / INICIATIVAS* |
| **2.2. Indarkeria kasuen arreta hobetzea.**<br><br>Indarkeria kasuetan arreta hobetzeak esan nahi du, besteak beste, errealitatea hobeto ezagutzea. Horretarako ezinbestekoa da jakitea zein den jaso behar dugun informazioa, zein den informazio hori eskuratzeko modua eta zein den informazioa eguneratuta egongo dela bermatzeko modua. Horrek zera eskatzen du: arretan inplikatuta dauden erakundeen arteko lankidetza eta koordinazio egokia. Garrantzitsua da halaber, arretaren inguruan emakumeek beraiek duten iritzia kontuan hartzea.<br>Arreta hobetzeko garaian kontuan hartzeko alderdiak: erakundeen babesa indartzea, emakumeak bere bizimodua ahalik eta gutxien aldatu behar izatea, egiturazko indarkeria ekiditea, etab. | • Udalerrian emakumeenganako indarkeriaren errealitatea zein den ezagutzeko neurriak hartzea. Horretarako zer informazio behar dugun zehaztu eta informazio hori jasotzeko eta eguneratuta edukitzeko modua definitu. Emakumeek beraiek arretaz egiten duten balorazioa ezagutzeko neurriak hartu, gainera.<br>• Profesionalen formazioa eta sentsibilizazioa egitea.<br>• Baliabideak/zerbitzuak areagotzea/hobetzea.<br>• Erreferentziako gune bat sortzea: Emakumeen Etxea (?)<br>• Erakunde arteko elkarlana eta kasuen segimendu koordinatua bermatzeko urratsak egin eta bitartekoak jartzea |
